



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko ekainaren 14a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Zerga Ogasuneko “Diru-bilketaren kudeaketa” aurrekontuko programari buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.)
- Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (19. or.)
- Nafarroako Parlamentuaren Kontu Orokorrari buruzko aholkularitza-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (29. or.)

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Zerga Ogasuneko “Diru-bilketaren kudeaketa” aurrekontuko programari buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko apirilaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen agintzea argitara dadila Comptos Ganberak egindako Nafarroako Zerga Ogasuneko “Diru-bilketaren kudeaketa” aurrekontuko programari buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa.

Iruñean, 2011ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Nafarroako Zerga Ogasuneko
“Diru-bilketaren kudeaketa”
aurrekontuko programari buruzko
fiskalizazio-txostena, 2009ko
ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Helburua, norainokoa eta mugak (3. or.).</p> <p>III. Nafarroako zerga ogasuneko “diru-bilketaren kudeaketa” programa (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1 Programaren deskribapena (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.2 Antolamendu-egitura (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.3 Programaren baliaibideak (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.4 Araudia (5. or.).</p> <p>IV. Iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1 Aurrekontu-programaren betetzea (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2 Legezketasuna (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3 Eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia (6. or.).</p> | <p>V. Programaren aurrekontu-betetzeari buruzko analisia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1 Langile-gastuak (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3 Finantza-gastuak (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4 Inbertsioak (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk (8. or.).</p> <p>VI. Tributuen diru-bilketari buruzko eta beste diru-sarrera batzuei buruzko datu orokorrak (9. or.).</p> <p>VII. Geroratzeak eta zatikatzeak borondatezko aldian (11. or.).</p> <p>VIII. Diru-bilketa exekutiboa (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VIII.1 Aldi exekutiboko diru-bilketari buruzko datu orokorrak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VIII.2 Aldi exekutiboan eginiko kobrantzak. (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VIII.3 Zorren geroratzeak eta epe exekutiboko zatikatzeak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VIII.4 Huts egindakoak (15. or.).</p> <p>IX. Preskribatutako zorrak (16. or.).</p> <p>X. Hartzekodunen lehiaketako prozesuan dauden sozietateen zorren kudeaketa (16. or.).</p> <p>XI. Gomendioak (17. or.).</p> <p>Nafarroako Gobernuako bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak aurkeztutako alegazioak (18. or.).</p> <p>Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (19. or.).</p> |
|--|--|

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak 2009ko ekitaldiko “Diru-bilketaren kudeaketa” aurrekontuko programa fiskalizatu du.

Azterlana Comptos Ganberak 2010. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko planean sartu zen, eta auditore batek eta auditoriako bi teknikariki osatutako talde batek egin zuen, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati-boekin lankidetzan.

“Diru-bilketaren kudeaketa” aurrekontuko programari dagokionez, Comptos Ganberak fiskalizatu zuen programa hori lehenago ere, 1998ko ekitaldiko programa hain zuzen; fiskalizazio-txostena 2000ko urtarrilaren 27an eman zuen.

Eskerrak ematen dizkiegu Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko Diru-bilketa Zerbitzuko langileei eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Fiskalizazioaren helburua zen gure iritzia ematea ondokoen inguruan:

a) “Diru-bilketaren kudeaketa” aurrekontuko programak biltzen ote duen 2009an izaniko jardueraren ondoriozko gastuen eta diru-sarreraren exekuzioa.

b) Programari aplikatzekoa zaion legedia 2009an bete den.

c) Aurreikusitako helburuak lortzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzearen efizientzia eta ekonomia.

Fiskalizatutako aldia 2009ko ekitaldia izan da, nahiz eta aurreko ekitaldira ere zabaldu den, lanaren xedearen betetzea aztertzeko komenigarri jo dugun alderdietan.

Norainokoari dagokionez, programaren kudeaketaren efizientzia, ekonomia eta eraginkortasuna ebaluatzeko muga izan ditugu honakoak: helburuak modu generikoan ezarri izana, hau da, egin beharrekoak adierazi ziren, baina ez, ordea, lortu beharreko emaitzak; kudeaketako adierazlerik

sartu ez izana, jarduerakoak izan ezik; eta lorturiko emaitzen ebaluazio falta. Kostu sistemarik ere ez dago ezarrita, jakiteko zein den diru-bilketako kudeaketa-prozesuei esleitu beharreko guztizko kostua.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoarentzat onartu eta Comptos Ganberak bere Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraikiz egin da azterlan hau.

Fiskalizazio-lana izan zen aztertzea, batetik, programak izandako diru-sarreraren eta gastuen lagin bat, eta, bestetik, aztertzea zer prozedura dauden ezarrita eta aplikatzen diren Diru-bilketa Zerbitzuan barne kontrolerako nahiz diru-bilketa kudeatzeko.

III. NAFARROAKO ZERGA OGASUNEKO “DIRU-BILKETAREN KUDEAKETA” PROGRAMA

III.1 PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Programaren helburua da Nafarroako Foru Komunitateak dituen zordunen kobrantza kudeatzea.


Programa bost aurrekontu-proiektu hauetan banatzen da:

- Jarduera orokorrak:
- Diru-bilketa aplikatzea eta kontrolatzea.
- Premiamendu-bidezko zorren kudeaketa.
- Prozedura berezietan eta afera juridikoetan dauden zorren kudeaketa.
- Gerorapenen kudeaketa

III.2 ANTOLAMENDU-EGITURA

Programaren ardura duen unitatea Diru-bilketa Zerbitzua da. Zerbitzu hori Foru Ogasuna erakunde autonomoaren –Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitako erakundea– Zerga Kontroleko Zuzendaritzaren pekoa da.

Hona hemen zerbitzu horren antolamendu-egitura eta zer lanpostu dituen esleituta unitate organiko bakoitzak:



Diru-bilketa Zerbitzuak zuzentzen du teknikoki eta kontrolatzen du, Foru Komunitateko diru-bilketarako organoa denez, Nafarroako Ogasun Publikoak egiten duen diru-bilketaren kudeaketa.

Zerbitzu hori egituratzen den ataletako batzuen eginkizunak honakoak dira:

Diru-bilketaren Aplikazio eta Kontrolaren Atala: Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailera (HKL) aldatu diren zor eta zordun guztien kontrol ekonomiko eta kontabilitatekoa, ofizioz egiten diren tributu-itzulketen kudeaketa, HKLn jasotako zorren kobrantzen aplikazioa, eta Foru Ogasunari diru-bilketan laguntzen dioten entitateen jardunbidearen kontrola.

Gerorapenen Kudeaketarako Atala: borondatezko epean dauden zorren gaineko gerorapen eta zatikatze-eskabideak kudeatzea eta tramitatzea, edota, epe exekutiboan egonda ere, premiamendu-prozedura abiatu gabe dauden zorren gai-

neko halako eskabideak kudeatzea eta tramitatzea; entitate publikoen zorren kobrantza kudeatzea; eta beste administrazio publiko batzuetan ordaindu diren zorrek kudeatzea.

Diru-bilketa Exekutiborako Atala: premiamendu-bideko diru-bilketa kudeatzea (salbu eta Prozedura Berezien Atalaren ardurapean utzitakoak) eta premiamendu-bidean diren zorren gerorapenak eta zatikatzeak kudeatzea.

Prozedura Berezien Atala: Premiamendu-bidean egon eta duten zenbatekoagatik, izaeragatik edo prozeduragatik bere ardurapean uzten diren zorren kudeaketa; prozedura berezietan dauden enpresa-zorren kudeaketa; Foru Ogasunaren eskubideen aldeko jokatzea desegite eta likidazio prozesuetan; erantzukizuna desbideratzeko prozeduren tramitazioa, bai eta kaudimengabezia-deklarazioen tramitazioa, ofiziozko preskripzioena eta Diru-bilketa Zerbitzuaren organoen egintzen aurka ezarritako errekurtsioena ere.

III.3 PROGRAMAREN BALIABIDEAK

Programak 2009an honako gastuak eta diru-sarrerak izanen zituela aurreikusi zen:

GASTUAK	Hasierako aurreikuspena
Langile-gastuak	974.749
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.378.350
Finantza-gastuak	320.000
Inbertsio errealak	15.000
GASTUAK, GUZTIRA	2.688.099

DIRU-SARRERAK	Hasierako kreditua
Berandutze-interesak eta epe exekutiboko errekaruak	12.666.000
Ondarezko diru-sarrerak	3.360.000
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	16.026.000

Programari 27 lanpostu esleitu zitzaizkion 2009rako; honakoak, zehazki: zerbitzuburu bat, Ogasuneko bi teknikari, Ogasuneko 10 kudeatzaile (horietako lau atalburuak, eta bat bulegoburua), informatika-sistemetako maila ertaineko teknikari bat (bulegoburua) eta bi administrari laguntzaile.

Diru-bilketa Zerbitzua egituratuta dagoen lau atalek GEDESA S.A. enpresa publikoaren lankidetzatza beharrezkoa dute zeregin batzuetarako (jakinarazpenak, egiaztapenak eta saldoen arazketa besteak beste), zeinak beharrezkoak baitira kasuko atalak bere eginkizunak bete ditzan.

III.4 ARAUDIA

Honakoak dira, besteak beste, 2009an programari aplikatzekoak zitzaizkion arauak:

- Abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokoa, Tributuei buruzkoa.
- Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketarako Erregelamendua, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsia.
- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

- 129/2002 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, tributu arloko zenbait prozeduraren gehieneko epeak eta Administrazioaren isiltasunak sortutako ondorioak arautzen dituena.

- 88/2002 Foru Agindua, abuztuaren 19koa, zerga gaitako diru-sarrera bidegabeak nola itzuli eta tributupekoen tributu jardunen gaineko zuzenketa eskaerak, inpugnazioak eta eztabaidak arautzen dituena.

- 178/2001 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren berraztertze errekurtsoaren eta erreklamazio ekonomiko-administratiboaren Erregelamendua onesten duena.

- 50/2006 Foru Dekretua, uztailaren 17koa, Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen (EIT) erabilera arautzen duena.

- Tributuek eta diru-bilketaren kudeaketaren xede diren gainerako baliabideei buruzko arauak.

- 119/2007 Foru Dekretua, irailaren 3koa, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena.

IV. IRITZIA

Fiskalizazioaren helburuekin bat, hona gure iritzia:

IV.1 AURREKONTU-PROGRAMAREN BETETZEA

Programari esleitu gabe utzi zaizkio 70.645 euro; hain zuzen ere, diru-bilketa kudeatzeko jardueretarako kontratatutako langile batzuen ordain-sariak.

“Diru-bilketaren kudeaketa” aurrekontuko programak, aurreko salbuespena gorabehera, islatu egiten du, alderdi nagusietan, 2009ko ekitaldiko diru-bilketarekin zerikusia duten gastuen eta diru-sarrereren betetzea.

IV.2 LEGEZKOTASUNA

2009an bete egin zen, oro har, “Diru-bilketaren kudeaketa” programari aplikatzekoa zitzaion araudia.

IV.3 ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA

Norainokoari dagokionez izan ditugun mugek –txosteneko II. epigrafean deskribatu ditugu– zail

egiten dute ebaluatzea ea diru-bilketako programa kudeatzean jarraitu ote diren efizientziaren, ekonomiaren eta eraginkortasunaren irizpideak.

Hala ere, 2009ko programaren jarduera aztertuta, ikusi dugu ezen aurreko ekitaldiko giza-baliabide ia berberekin aurrerapen nabarmenak egin direla zenbait alderditan, hala nola gerorapenetan eta zatikatzeetan eta premiamendu-bidean dauden zorren kobrantzan, eta, hala, gutxitu egin dela Gedesa S.A. enpresa publikoari lankidetzagatik ordaindu beharreko diru-kopurua.

Gure ondorioa da, oro har, prozedura egokiak erabiltzen direla diru-bilketa kudeatzeko eta onargarria dela zorrak kobratzera bideratutako jarduketetan dagoen barne-kontrolerako sistema. Horrek ez du esan nahi, ordea, zerbitzuan diru-bilketaren kudeaketaren emaitzak areagotzeko hobekuntzarik egin behar ez denik. Hobekuntza horiek, funtsean, honakoak dira: Diru-bilketa Zerbitzuak bere eginkizunetarako beharrezkoa duen jende-kopuruz hornitua egon behar du, aplikazio informatikoak hobetu egin behar dira, Foru Komunitateko Administrazioako beste zerbitzu batzuekiko koordinazioak hobetu beharra dauka, informazioa lortze aldeira subjektu pasibo zordunak dituen errenten eta zorren gainean.

V. PROGRAMAREN AURREKONTU-BETE-TZEARI BURUZKO ANALISIA

Honakoak izan dira “Diru-bilketaren kudeaketa” aurrekontu-programaren 2009ko betetzea eta aurreko ekitaldiko betetzearekiko alderaketa:

GASTUAK	2008	2009		
	Gastua	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Gastua
Langilea-gastuak	771.003	974.749	813.626	813.626
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.170.953	1.378.350	1.170.904	1.151.654
Finantza-gastuak	2.189.876	320.000	320.000	286.806
Inbertsio errealak	3.647	15.000	15.000	4.225
DIRU-SARRERAK	4.135.479	2.688.099	2.319.530	2.256.311

GUZTIRA	2008	2009		
	Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Diru-sarrerak
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	14.957.240	12.666.000	12.666.000	26.097.766
Ondarezko diru-sarrerak	3.337.979	3.360.000	3.360.000	4.335.006
GUZTIRA	18.295.219	16.026.000	16.026.000	30.432.772

Programaren gastuek, 2009an, 2.256.311 euro egin zuten. Gastuaren ehuneko 47 Gedesa S.A enpresa publikoaren esku utzitako mandatuari dagokio; ehuneko 36, berriz, langile-gastuei dagokie; eta ehuneko 13, azkenik, epez kanpo eginiko zerga-itzulketen ondorioz ordaindu beharreko berandutze interesei. Behin betiko kredituen ehuneko 97 bete zen.

2008an baino ehuneko 45 gutxiago izan zen hori, eta arrazoia izan zen finantza-gastuak gutxitu izana. Horrela, 2008an, 1.323.929 euro ordaindu ziren Auzitegi Gorenaren epai baten ondorioz (2007ko uztailaren 9ko epaia); auziaren jatorria BEZaren inguruko eskumen-gatazka bat izan zen Nafarroaren eta Estatuaren artean, upategi batzuk zirela-eta. Beste 349.520 euro ere ordaindu ziren Europako Justizia Auzitegiak BEZaren prorrata zela-eta emaniko epai bat zela medio (2005eko urriaren 6ko epaia).

Programaren diru-sarrerak 30.432.772 euro egin zuten. Horietatik, ehuneko 49 epe exekutiboko errekarquei dagokie; ehuneko 36 berandutze-interesei; eta ehuneko 14 ondarezko diru-sarrerari. Behin betiko aurreikuspenak oinarri hartuta (16 milioi euro), ehuneko 190ean bete ziren.

2008koekin alderatuta, % 66 egin zuten gora, handitu egin baitziren berandutze-interesak eta epe exekutiboko errekarqueak.

V.1 LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuek 813.626 euro egin zuten; 2008an baino ehuneko 5,5 gehiago.

2009ko abenduaren 31ko plantilla organikoaren arabera, Diru-bilketa Zerbitzuak 27 lanpostu zituen esleitura, eta horietatik bost hutsik zeuden. Hutsik zeuden bost lanpostuetatik lau aldi baterako kontratazioen bidez bete ziren, eta bosgarrena prestakuntzako funtzionario baten bidez.

Aldi baterako kontratazio horiek ez zitzaizkion “Diru-bilketaren kudeaketa” programari esleitu, baina bai zik eta “Ogasuneko Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorra” aurrekontuko programari.

Diru-bilketa Zerbitzuko bost langileren ordainsariak berrikusi ditugu, eta egiaztatu dugu jasotzen dutena betetzen dituzten lanpostuei dagokiena dela eta bat datorrela plantilla organikoan agertzen denarekin (ordainsariak, langileen egoera administratiboak eta pertsonalak) eta aplikatzea den araudiarekin.

V.2 ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK

Ondasun arruntek eta zerbitzuek 1.151.654 euro egin zuten; 2008an baino ehuneko 1,65 gehiago. Gastu horien % 92 Gedesa, S.A. enpresa publikoari emandako mandatuari dagokio.

Ondoren, berrikusitako gastuak aztertu eta fiskalizazio-lanetatik ateratako ondorioak agertzen ditugu.

- Gedesa S.A.ri emandako mandatuak

Hona Gedesa S.A enpresa publikoak 2009an eman zituen zerbitzuak eta horien gastuak:

	Gastua
Diru-bilketa exekutiboko lanak	739.921
Prozedura berezietan dauden zorrak	222.757
Saldoen arazketa eta gerorapenen kudeaketa	72.407
Kobrانتzen arazketa eta diru-bilketa aplikatzearen ondoriozko beste batzuk	19.488
Guztira	1.054.573

Mandatuarengatiko gastua 2008an baino ehuneko 4 txikiagoa izan zen, enpresarekin negoziatu eta aplikatzen ziren tarifak jaitsi egin baitziren.

Mandatuaren xedea da saldoak araztea, erregistroak zuzentzea eta berrikustea, betetzen ez diren gerorapenak kudeatzea, prozedura berezietako zorrak kudeatzea, jakinarazpenak egitea, zorren kobrantza kudeatzea –horretarako eta, beharrezkoa bada, zordunak aurkituz, kudeaketa administratiboa eta langileena eginez–, eta, kasu bada, zordunen ondasunen eta eskubideen gaineko ikerketa egitea eta errekursoak eta enkanteak izapidetzea.

Mandatuaren justifikazioa da Diru-bilketa Zerbitzuan langileak behar direla, aurreko lerrokadan deskribatutako zeregin guztiak egiteko.

Gedesarentzako mandatuak izapidetu zen aplikatzekoa den araudiaren arabera: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari entitate instrumentaltzako mandatuak arautzen dituen martxoaren 27ko 27/2007 Foru Dekretua eta Nafarroako Gobernuaren 2008ko apirilaren 14ko Erabakia, espedienteen edukia eta mandatuen kontrol-araubidea ezartzen dituenak.

Hala eta guztiz ere, 2009ko apirilaren 24an onetsi zen, mandatuko zerbitzuak hasi eta lau hila-bete geroago.

- Tributu arloko auzietatik heldu diren gastuak.

Gastu horiek 752.922 euro egiten dute, eta abalen kostuarengatiko kalte-ordainei eta tributudunek aurkeztutako beste berme batzuei dagozkie, hain zuzen ere epai bidez edo administrazio-ebazpen irmo batez bidegabekotzat jotakoei.

Lagin batean egiaztatu dugu gastuak behar bezala onetsi, justifikatu eta kontabilizatu direla.

V.3 FINANTZA-GASTUAK

Finantza-gastuek 286.806 egin zuten, eta bidegabeko zergak eta tributu diru-sarrerak legez ezarritako epeez kanpo itzultzeagatiko berandutze-interesei dagozkie.

Lagin batean egiaztatu dugu gastu horiek behar bezala onetsi, justifikatu eta kontabilizatu direla.

V.4 INBERTSIOAK

Inbertsio gisa kontabilizatutako gastuek 4.226 euro egin zuten, baina gastu arrunt gisa hartu dira, zeren eta gutun-azal eta fotokopietarako eta txostenak koadernatzeko gastuak baitira.

V.5 TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

“Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak” izeneko diru-sarreraren 3. kapituluari, geroratu gabeko zorren berandutze-interesak eta aldi exekutiboko errekaruak kontabilizatzen dira.

2009an sortutakoak izan eta aldi exekutibokoak diren errekaru lagin bat aztertu dugu. Diru-sarrera horiek 15 milioi euro egin zuten; 2008an baino ehuneko 87 gehiago, beraz. Haien exekuzio mailak behin betiko aurreikuspenen ehuneko 238 egin zuten.

Errekaru horiek sortu ziren aldi exekutiboa hastearrekin, eta borondatezko aldiari sartu gabeko zorraren gainean kalkulatu dira. Hauexek dira:

– errekaru exekutiboa 100eko 5ekoa izan da zorra aldi exekutiboan ordaintzen denean, baina premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena egin baino lehen.

– premiamendu errekarua murriztua, 100eko 10ekoa, izan da zorra ordaintzen denean premiamenduzko prozedura hasteko oinarri izan diren zorrak ordaintzeko erregelamenduz ezarritako epea bukatu baino lehen.

– ehuneko 20ko premiamenduzko errekaru arrunta, aurreko bi errekaruetako edozein aplikatzeko inguruabarrik gertatzen ez denean.

Premiamenduzko errekaru arrunta bateragarria da berandutze-interesekin, baina halakorik ez da gertatzen errekaru exekutiboarekin eta premiamenduzko errekaru murriztuarekin.

Aztertutako laginean egiaztatu dugu ezen ehuneko bosteko errekaru exekutiboa ez zela zuzen aplikatu kasu guztietan.

Premiamenduzko errekaru murriztuari (ehuneko 10) dagokionez eta premiamenduzko errekaru arruntari (ehuneko 20) dagokionez, haien sortazpena eta ezarpena haien buruzko arauen arabera egin ziren, eta zuzen kontabilizatuta daude.

VI. TRIBUTUEN DIRU-BILKETARI BURUZKO ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUEI BURUZKO DATU OROKORRAK

Foru komunitatearen tributu- eta finantza-jardura hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautzen da. Nafarroak ahalmena du bere zerga araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko, hitzarmen ekonomikoan ezarritakoa ezertan ere kendu gabe.

Diru-bilketa zerbitzuak honako tributuen kobrantza kudeatzen du, borondatezko aldian nahiz aldi exekutiboan:

– Zuzeneko zergak: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, pertsona fisikoen ondarearen gaineko zerga (2008ra arte) eta egoiliarak ez direnen errentaren gaineko zerga.

– Zeharkako zergak: BEZa, zerga bereziak, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, aseguruaren primen gaineko zerga eta hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren gaineko zerga.

– Jokoaren gaineko tasak

Tributuok, oinordetzen gaineko zerga izan ezik, aitorten-likidazioen edo autolikidazioen modura kudeatzen dira, subjektu pasiboa baita adierazpena aurkeztu behar duena, Administrazioaren errekerimendurik gabe; hau da, zorra kalkulatu eta tributu bakoitzaren arauak ezarritako epe eta datetan ordaindu behar du.

Diru-bilketa Zerbitzuak kudeatzen dituen tributuen kudeaketa Zuzeneko Tributu, Zehapen eta Errekerimenduen Zerbitzuari, Zeharkako Tributuen eta Enpresa Handien Zerbitzuari eta Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuari dagokie.

Diru-bilketa Zerbitzuak Gobernuko departamentuen zor ez-fiskalak bide exekutibotik kobratzea kudeatzen du, bai eta berandutze-interes, errekerimenduen eta tributu-zehapenen likidazioa eta diru-bilketa ere.

Tributuen 2008ko eta 2009ko diru-bilketa likidazioa, itzulketak deskontatuta, honakoa izan zen, Diru-bilketa Zerbitzuko oroitidazkiko datuen arabera:

Kontzeptua	2009	2008	Aldea 08/09
PFEZa	1.110.226.132	1.156.592.634	% -4
Sozietateen gaineko zerga	412.564.054	419.264.030	% -2
Ez-egoiliarak	10.646.435	11.296.336	% -6
Oinordetzen gaineko zerga	37.930.796	47.864.210	% -21
Ondarearen gaineko zerga	3.161.839	66.325.275	% -95
Baloreen gaurkotzearen gaineko karga	2.538	275	% 823
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	1.574.531.794	1.701.342.760	% -7
BEZa, zuzeneko diru-bilketa	712.445.487	691.251.608	% 3
Diru-bilketa zuzeneko zerga bereziak	449.720.565	459.904.299	% -2
Estatuaren doitzak, BEZa eta zerga bereziak direla eta	151.259.810	159.357.947	% -5
Ondare-eskualdaketak	41.269.942	49.222.192	% -16
Egintza juridiko dokumentatuak	32.941.554	43.412.197	-24%
Aseguruaren primaren gaineko zerga	18.596.329	20.171.413	% -8
Hidrokarburuen txikizkako salmentaren gaineko zerga	21.932.722	22.592.955	% -3
Iraungitako zergak	21.630	18.132	% 19
ZEHARKAKO ZERGA, GUZTIRA	1.428.188.039	1.445.930.743	% -1
Jokoaren gaineko tasak	12.159.768	13.193.460	% -8
Joko-kartoen salmenta	101.571	119.079	-15%
Kanonak	123.330	60.770	% 103
Zehapen fiskalak	8.532.735	7.376.382	% 16
Berandutze-interesak	3.866.242	3.680.413	% 5
Premiamendu-errekargua	4.108.605	3.386.233	% 21
Beste diru-sarrera batzuk	4.543.761	4.090.297	% 11
TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	33.436.012	31.906.634	% 5
<i>Tributuz bestelako diru-bilketa</i>	<i>5.388.498</i>	<i>2.364.458</i>	<i>% 128</i>
DIRU-BILKETA LIKIDOA, GUZTIRA	3.041.544.343	3.181.544.595	% -4

Diru-bilketa likidoak ehuneko 4 egin zuen behera 2009an aurreko urtearen aldean, batez ere ondarearen gaineko zerga eta PFEZa desagertzearen ondorioz. Zenbatekoa aurreko zergak bezain handia ez bada ere, nabarmentzekoa da egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta

oinordetzen gaineko zergaren bilketan gertatu den jaitsiera, ehuneko 24koa eta 21ekoa, hurrenez hurren.

Honakoak dira bilketaren aplikazioa eta kontrola direla-eta eginiko jardueraren adierazleetako batzuk:

	2009
Jasotako kobrantzen kopurua	651.898
Kobrantzen zuzenketa	32.350
Banku-igorpenak	1.723
Itzulketen kopurua	289.009
Konpentsazioen kopurua	29.130

Tributu-zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kobrantzaren kudeaketa hirugarrenen kontabilitate laguntzailea (HKL) aplikazio informatikoan erregistratzen da. Aplikazio informatiko horretatik jasotako idazpen guztiak kontabilitate orokorrera eta aurrekontu kontabilitatera (G21) egunero aldatzen dira.

Kasu batzuetan kontabilitateak ez du zuzen jasotzen hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen informazioa kontabilitate plan orokorreko kasuko kontuetan. Esate baterako, ez dira kontabilizatzen itxitako aurrekontuetako zordunak, eta ez dira, ezta ere, zuzen jasotzen zorren geroratzeak eta zatikatzeak.

Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (HKL) bitartez, kontrolatzen da kobrantzak kasuko zergak erregulatzeko arauetan ezarritako epeetan jasotzen direla, eta behar diren erreargua eta interesak sortzen dira ez-betetze kasuan.

Ia kobrantza guztiak automatikoki aplikatzen zaizkie, sistema informatikoaren bitartez, dagozkien diru-sarrerei.

2009an zehar, kobrantza zuzenduak izan ziren jasotako kobrantza guztien ehuneko bost.

Zergen itzulketei dagokienez, berriz, ehuneko 99 automatikoki egiten dira. Zerga bat itzuli baino lehen, prozesu automatizatu baten barruan, zergadunaren egoerari buruzko zenbait egiaztaketa egiten dira; esate baterako, ea konpentsatzeko zorrik baduen, tributu-betebeharrak bete dituen eta abar.

Programaren deskribapenean adierazten den bezala, diru-bilketa programaren helburua lortzeko egintzak zentratzen dira prozeduren automatizazioaren bitartez ezarritako sistemak hobetzean.

Horri dagokionez, Diru-bilketa Zerbitzuak, Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoa-ren Zuzendaritzarekin batera, diru-bilketa kudeatzeko tresnak hobetzeko proiektu bat abiatua du.

VII. GERORATZEAK ETA ZATIKATZEAK BORONDATEZKO ALDIAN

Honakoak dira azken bi ekitaldietan izapidetutako geroratzeak eta zatikatzeak, Diru-bilketa Zerbitzuaren oroitidazkiko datuen arabera:

	2009	eskatutako gaineko %	2008	eskatutako gaineko %
Eskatutakoak	9.172		5.102	
Emandakoak				
– Kopurua	6.567	% 72	3.587	% 70
– Zenbatekoa	109.112.492		59.489.575	
Ukatuak	1.623	% 18	862	% 17
Emateko daudenak	982	% 10	653	% 13
Geroratzeen eta zatikatzeen saldoa, abenduaren 31n	108.522.092		66.868.952	

Datu horien arabera, 2009an eskatutako zor-zatikatzeeen eta geroratzeen kopurua % 80 handiago izan zen 2008an baino. Bai 2008ko ekitaldian, bai 2009ko ekitaldian, antzeko ehunekoak eman eta ukatu ziren; hau da, urte bakoitzean aurkeztutako eskarien % 70 eta % 17 inguru, hurrenez hurren.

2009an, 6.567 zatikatze eta geroratze eman ziren, eta 109 milioi euro egiten zuten guztira –ehuneko 83 gehiago 2008an baino, kopuruari zein zenbatekoari begiratuta–. Ikusten da 2009an emandakoen mugaeguna luzatu egin dela, 2008an emandakoekin alderatuta.

2009an ukatutako zatikatzeen eta geroratzeen ehuneko 68 zor zaizkio eskatzaileak betekizunak ez betetzeari; ehuneko 21, berriz, aurreratutako kobrantzei; ehuneko bederatzi zorra konpentsatu izanari; eta gainerakoak, azkenik, hartzekodunen lehiaketeki.

Zatikatatutako eta geroratutako zorraren 2009ko ekitaldiko itxierako saldoak 108.522.092 euro egiten du, hain zuzen ere ehuneko 62 gehiago 2008an baino. Ehuneko 44 BEZari dagokio; ehuneko 20 sozietateen gaineko zergari, eta ehuneko 24, azkenik, geroratze bereziei. Aurreko guztizkoa-

ren ehuneko hiru, 3.351.620, ekitaldiaren amaieran ordaindu gabe zeuden.

Mugaegunera iritsi eta epe bat ordaindu ez izateak berarekin dakar epe hori eta gainerakoak amaitutzat jotzea, eta diru-bilketa exekutibora iragatea. 2009an, guztira 1.244 zor zatikatze eta geroratze iragan ziren diru-bilketa exekutibora, 11 milioi euro egiteraino (6,4 milioi BEZari dagozkio eta 1,8 milioi, berriz, sozietateen gaineko zergari). 2008an, 589 zatikatze eta geroratze diru-bilketa exekutibora aldatu ziren: 4 milioi euro egin zuten.

Geroratzeen eta zatikatzeen kudeaketa zenbait aplikazio informatikoren bitartez egiten da. Hirugarrenen kontabilitate laguntzailean, emandakoak jasotzen dira. Eskatu diren, ukatu diren edo izapidetzen ari diren geroratzeei eta zatikatzeei buruzko informazioa, berriz, beste aplikazio informatiko bateko fitxategietan biltzen da.

2009an baimendutako zatikatzeen 14 espedienteren lagin bat aztertu dugu. Guztira, 19 milioi euro egiten dute. Orokorrean, haien izapidetzea Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren arabera egin zen. Zuzen aplikatu ziren kasuko berandutze-interesak, eta egiaztatu dugu ezarritako epeen mugaeguneri buruzko jarraipen- eta kontrol-lanak egiten direla.

VIII. DIRU-BILKETA EXEKUTIBOA**VIII.1 ALDI EXEKUTIBOKO DIRU-BILKETARI BURUZKO DATU OROKORRAK**

Diru-bilketa exekutiboan zegoen zorraren saldoa honakoa zen 2008an eta 2009an:

Zenbatekoa (eurotan)	2009		2008	
	Zordun kopurua	Zenbatekoa	Zordun kopurua	Zenbatekoa
5.000tik beherakoa	14.938	13.847.854	12.654	11.544.198
5.000-49.999	2.861	45.798.029	2.546	41.181.034
50.000-99.999	289	19.696.957	221	15.190.991
100.000-500.000	288	59.439.940	239	51.844.513
500.000tik gorakoa	69	79.153.917	50	45.514.993
Guztira	18.445	217.936.697	15.710	165.275.729

Diru-bilketan zegoen zorraren saldoa 217.936.697 eurokoa zen 2009an, hain zuzen ere 2008an baino ehuneko 32 txikiagoa, eta 18.445 zorduni zegokien.

217.936.697 euroko zorraren guztizkotik, ehuneko 45 BEZari zegokion, eta ehuneko 11, berriz, departamentuen zor ez-fiskalak ziren, nagusiki Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuarena (6,45 milioi), Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko Departamentuarena (6,21 milioi) eta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarena (4,88 milioi).

2009an, borondatezko aldian kobratu gabeko zorren 97,87 milioi euro diru-bilketa exekutibora iragan ziren; 2008an, berriz, 50,76 izan ziren iragandako milioiak. 2009an, beraz, ehuneko 93 gehiago izan ziren.

Diru-bilketa Zerbitzuak zorrak aldi exekutiboan kudeatzeko erabiltzen dituen prozedurak aztertu dira, argitze aldera ea Diru-bilketari buruzko Erregelamenduarekin bat datozen, eta egiaztatu da, 2009ko aldi exekutiboan eginiko jarduketan lagin batean (kobrantzak, bahiturak, geroratzeak, zatikatzak eta huts-egiteak), zuzen aplikatu direla ezarritako prozedurak. Hurrengo ataletan bildu ditugu jasotako ondorioak.

VIII.2 ALDI EXEKUTIBOAN EGINIKO KOBRANTZAK.

Aldi exekutiboa hasten da kobrantzarako borondatezko aldia amaitzen denean. Aldi exekutiboan, zorrak premiamenduzko bidetik kobratzen dira. Prozedura horren hasiera da zordunari premiamenduzko probidentzia jakinaraztea. Haren bitartez, eskatzen zaio zor duena ordain dezan, dagoz-

kion errekararekin eta berandutze-interesekin, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Zorra epe horretan kobratzen ez bada, ondasunak eta eskubideak bahitzeko probidentzia emanen da, behar adinako kopuruan.

Tributuak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrerara batzuk aldi exekutiboan kobratzeaz arduratzen diren Diru-bilketa Zerbitzuko unitateak honakoa dira: Diru-bilketa Exekutiboaren Unitatea, 150.000 euro bitarteko zorretarako, eta Prozedura Berezien Atala, kopuru horretatik gorako zorretarako.

Baliabide pertsonalak aski ez direnez, Gedesa Sozietate Publikoari diru-bilketa exekutiboarekin lotutako zenbait eginbehar esleitzen zaizkio. Lan horiek sozietate horri egiten zaizkion enkargu guztien ehuneko 70 dira.

Aldi exekutiboan eginiko kobrantzen lagin bat aztertu dugu (banku-kontuak, pentsioak eta ondasun higiezinak eta haien besterentzea), eta ondorioztatu dugu orokorrean Diru-bilketari buruzko Erregelamenduan ezarritako prozedurak bete egiten direla.

Hala eta guztiz ere, aldi exekutiboko zorren kudeaketan hobetzeko modukoak diren alderdi batzuk hauteman ditugu. Hautemandako gabeziak ondoren deskribatzen ditugunak dira.

=> Premiamenduzko prozeduraren hasiera.

2009ko ekitaldian 32 prozesu automatiko egin ziren, borondatezko aldiak kobratu ez diren zorrak diru-bilketa exekutibora iragateko 24.172 kasu jaso zituztenak. Iragan aurretik, zenbait baldintza betetzen dituztenak hautatzen dira: ordaintzeko borondatezko epea bete izatea, bermatuta ez egotea eta geroratzerik ez eskatzea⁽¹⁾.

(1) Laugarren alegazioaren bidez aldatutako lerrokada.

Zorren arazketa eskuz egiten da, Gedesa S.A. enpresa publikoaren laguntzarekin. Prozesu horretan, honakoak egiaztatzen dira: borondatezko aldi-an aplikatu gabeko kobrantzak, hartutako zorretan izandako akatsak, helbideratze aginduetan eginiko akatsak eta abar.

Jarduketa horiek guztiak berandutu egiten dute zorrak diru-bilketa exekutibora iragatea, eta premiamenduzko prozeduraren hasiera geroratzen dute.

=> Diru-bilketa exekutiboaren kudeaketa informatikoa.

Diru-bilketa exekutiboa zenbait aplikazio informatiko independenteren bitartez kudeatzen da.

Alde batetik, aldi exekutiboan eginiko eragiketarak HkLn erregistratzen dira. Aplikazio horretan, ez dira islatzen eragin ekonomikorik ez duten jarduketak; esate baterako, premiamenduzko probidentziak, banku-kontuen eta soldaten bahitura-eginbideak eta abar. Aplikazio horren osagarri, beste tresna informatiko bat ere badago, TIGRE izenez ezagutzen dena (diru-bilketa exekutiboaren kudeaketarako tratamendu integrala).

Aplikazio horren garapen osoa amaitu ez denez, tresna horrek ez ditu biltzen diru-bilketa exekutiboaren arloko jarduketa guzti-guztiak; besteak beste, ez ditu jasotzen banku-kontuenak eta soldatenak ez diren bahiturak. Jarduketa horiek, izan ere, Acceseko kanpoko fitxategien bitartez kontrolatzen dira.

Gainera, beste datu base batean, informazioa jasotzen da zordunaren eta haren oinordekoen heriotzari buruz, entitateak desagiteari buruz, zorra deribatu ahal zaien pertsona arduradunei buruz eta abarrei buruz. Horrek premiamenduzko prozeduraren izapidetzea zailtzen eta mantsotzen du, aztertutako laginean egiaztatu dugun bezala.

=> Aldi exekutiboaren errekaruak eta berandutze-interesak

Diru-bilketa exekutibora iragan diren zorrak HkLn kontabilizatzen dira, eta automatikoki eta behin-behinekoz erregistratzen dira ehuneko 20ko errekarua eta aldi exekutiboaren hasieratik diru-bilketa exekutibora iragan arte sorturiko berandutze-interesak.

Zorra kobratzeko dataren arabera, aldi exekutiboko hiru errekaru motetako bat eta, kasua bada, berandutze-interesak aplikatuko dira.

Premiamenduzko errekaru murriztua (ehuneko 10) bidezkoa bada, automatikoki egiten dira ehuneko 20ko errekaruaren gaurkotzea eta hasieran kontabilizatutako berandutze-interes deuseztatzea.

Hala eta guztiz ere, ehuneko bosteko errekaru exekutiboa bidezkoa bada, zorra premiamenduzko

probidentzia jakinarazi aurretik kobratu zelako, aplikazio informatikoak ez du automatikoki egiten ehuneko 20ko errekaruaren zuzenketa, eta zuzenketa hori eskuz egin behar da, zorraren kudeatzailearen ekimenez (berandutze-interesak automatikoki deuseztatzen dira).

Ehuneko 20ko errekarua bidezkoa denean, hasieran kontabilizatutako berandutze-interesak –zorra diru-bilketa exekutibora iragan zenetik zor hori kobratu artekoak– gaurkotu egiten dira, zorren geroratze edo zatikatze kasuetan, bermeen prestazioa duen premiamenduzko prozedura eteteko kasuetan eta bermeak exekutatzeko kasuetan.

=> Bahiturak

Diru-bilketari buruzko Erregelamenduan ezarritako hurrenkerari jarraituz, zordunaren edo erantzuleen ondasunak ondoz ondo bahituko dira, hariak eta zorra estali arte. Honakoa izanen da hurrenkera: banku-kontuak, kredituak, baloreak, epe laburrean gauza daitezkeen eskubideak, soldata eta pentsioak, higiezinak, ondasun higigarriak eta epe luzeko kredituak.

Bahitura-jarduketa bakoitzeko, bahitura-eginbide bat egiten da, eta azken hori, behin traba egin ondoren, interesdunari jakinaraziko zaio. Edozein unetan bahitura zabalduta ahal izanen da, beste ondasun batzuetara ere hedatuz, baldin eta jotzen bada lehen tratatutakoak ez direla nahikoak izanen. Ondoz ondo lortutako informazioan ondasun batzuk sortzen badira, bahituraren hurrenkeran jada bahitu diren baina bahitura hori gauzatu ez den beste batzuk baino lehenago daudenak, haiek gauzatu dira lehenago.

6.000 euro baino zor txikiagoetan, banku-kontuen bahitura telematikoa aurreikusten da, Nafarroako Zerga Ogasunaren prozedura telematikoa berariaz atxiki zaizkion finantza entitateetako banku-kontuen kasuan. Murriztapen bat dago: banku eta zordun bakoitzeko, hiru banku-kontu bakarrik.

Soldatak bahitzeari dagokionez, hitzarmen bat badago Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarekin, bi entitateen zordunei buruzko informazioa trukatzeko. Alabaina, gaur egun informazio hori ez da aldizka jasotzen, eta, horrenbestez, kudeatzaileak informazio hori banaka kontsultatu behar izaten du zordun bakoitzaren kasuan Gizarte Segurantzaren datu basean, Nafarroako Zerga Ogasunean horretarako sarbidea bai baitago.

Arauek aurreikusten duen arren aurrena epe luzeko kredituak bahituko direla, Nafarroako Zerga Ogasunak lehenbizi soldata eta pentsioak bahitzen ditu.

Hona 2008an eta 2009an eginiko bahiturei buruzko datu batzuk:

	2009	2008
Banku-kontuen bahiturak:		
- Eginbideen kopurua	30.907	21.612
- Eginbide positiboen kopurua	1.632	2.810
- Bahitutako zenbatekoa	1.909.448	2.154.828
Kredituen bahitura:		
- Zordunen kopurua	596	521
- Errekerimenduen kopurua	1.162	945
- Bahitutako zenbatekoa	586.658	478.482
Soldaten bahitura:		
- Eginbideen kopurua	2.072	2.404
- Bahitutako kopurua	653.613	703.325
Ondasun higiezinaren bahiturak:		
- Trabatutako bahituren kopurua	198	166
- Ordaindu direlako altxatu diren bahituren kopurua	40	50
- Beste arrazoi batzuegatik altxatu diren bahituren kopurua	16	16
Higiezinaren bahituren exekuzioa:		
- Egindako enkanteen kopurua	10	5
- Kobratutako zenbatekoak	378.706	50.000

Bahituren kudeaketa dela-eta, kudeatzaileek ikerketa ugari egin behar izaten dituzte zordunaren diru-sarreraren iturriei buruz. Lan hori errazago eginen litzateke eta arinduko litzateke zordunari buruz Nafarroako Zerga Ogasunaren datu baseetan dagoen informazioa modu efizienteagoan aprobetxatuko balitz, eta gauzatu diren eginbideei eta egindako bahitura-jarduketetan lortutako emaitzei buruzko informazioa hobeki antolatuko balitz.

VIII.3 ZORREN GERORATZEAK ETA EPE EXEKUTIBOKO ZATIKATZEAK

Zorren aldi exekutiboko geroratzea eta zatikatzea edozein unetan eskatu ahalko da, betiere bahitutako ondasunak besterentzeko baimena eman baino lehenago. Aldi exekutiboko geroratzearen edo zatikatzearen zenbatekoak barnean hartzen ditu zorraren printzipala gehi ordainketa geroratzearen ondoriozko errekarua eta berandutze-interesak.

Zordunak geroratutako epea estaltzeko adinako berme bat eskaini beharko du, horren barne direla premiamenduzko errekarua, geroratzeak dakarren berandutze-interesak eta printzipalaren eta interesen baturaren ehuneko bost.

Bermeak honakoak izan daitezke:

- 1- Finantza-entitateen abal solidarioa.
- 2- Behar adinako abala aurkezteko ezintasunaren aurrean, honakoak eskaini ahalko ditu: higiezi-

nen hipoteka, higigarrien hipoteka, desplazamendua dakarren prenda bat, fidantza pertsonal eta solidarioa edo nahikotzat jotzen den beste edozein.

Zor geroratzeetan bermeak aurkezteko betebeharretik salbuesten da geroratutakoa 210.354 euro baino gutxiago direnean, betiere epea hiru urtekoa baino laburragoa denean eta eskatzaileak geroratzea eskatzen duen zorraren ehuneko 30 aurkezten duenean.

Halaber, aparteko kasuetan, baimena ematen da bermeen salbueste partzialerako nahiz osorako, zordunak ondasun edo eskubide nahikorik ez duenean eta haren ondarearen exekuzioak funtsean eragiten duenean zordunaren jardura ekonomikoaren gaitasun produktiboaren edo enplegu-mailaren mantentzean, edo Nafarroako Zerga Ogasunaren interesei kalte handia egiten dienean.

Edozein eperen mugaeguna iritsita ordainketa egiten ez bada, joko da gainerako epeak ere egun horretan mugaegunera iritsi direla. Zorra bermatu baldin bazen, bermeak exekutatu eginen dira, eta hala ez bada, geroratutako zor guztiaren premiamenduzko prozedurarekin jarraituko da.

Geroratzearen edo zatikatzearen kudeaketa hirugarrenen kontabilitate laguntzailean islatuko da.

Hona 2008an eta 2009an eskatu eta emandako gerorapenak nahiz zatikatzeak:

	2009	2008	Aldea
Eskatutako gerorapenak	1.356	809	% 266,5
Onartutako gerorapenak	971	643	% 51
Onartutako zenbatekoa	7.383.477	3.836.619	% 92
Deuseztatutako gerorapenak (ez betetzeagatik)			
• Kopurua	381	194	% 96
• Zenbatekoa	3.026.544	2.512.409	% 20

Aldi exekutiboko zorren geroratzeen eta zatikatzeeen lagin bat aztertu dugu, eta honako ondorioetara heldu gara: jasotako eskariek arauetan exijitzen diren baldintzak betetzen dituzte; arau erregulatuarekin ezarritakoaren arabera eman dira; organo eskudunak erabaki ditu; berraztertuta daude, kasu bada; eta zordunari dagozkion errekareruak eta interesak eskatu zaizkio, eta ezarritako epeetan.

Hala eta guztiz ere, antzeman dugu funtsean aplikazio informatikoaren funtzionamendutik heldu diren gorabehera hauek gertatu direla:

– Zorren zati bat zatikatu edo geroratu behar baldin bada, zatikatzea edo geroratzea baimendu aurretik kobratzen da; kasu guztietan ez dira berandutze-interesak gaurkotzen zorra diru-bilketa exekutibora iragaten denetik geroratzeko eskariaren datara arte pasatuko denboraren arabera, kobrantzari dagokion zatian.

Kaudimen-gabeziak	2009	2008	Aldea
Kopurua	1.708	1.483	% 15
Zenbatekoa	6.886.014	5.390.135	% 28

Kaudimenik gabekotzat jotako zordun guztiak ez dira kobraezin gisa kudeatzen. Zordun bat kobraezin deklaratu aurretik, zenbait jarduketa eramaten dira aurrera, haren egoera ekonomikoa ezagutze aldera eta ikertze aldera erantzule subsidiario edo solidariorik baden. Aurretiko ikerketajarduketa horiek baliabide pertsonalak eskatzen

	2009	2008
Nortasun juridikoa duten erakundeak:		
• Amaitutako espedienteak	5	2
• Zenbatekoa	4.214.683	1.632.043
• Erantzuleen kopurua	86	68
• Kobrantzak	192.484	1.313.218
• Geroratua	128.295	107.663
Sozietate irregularrak		
• Amaitutako espedienteak	20	23
• Zenbatekoa	36.715	85.439
• Erantzule kopurua	155	198
• Kobrantzak	130.789	238.762
• Geroratua	27.992	4.861

– Geroratutako zorra osatzen duten kontzeptuak (kuota, errekareru, interesak) xehakatzekoan akatsak egin dira, eta akats horiek eragina izan dute baimendutako geroratzearen edo zatikatzearen berandutze-interesen kalkuluan, interes horiek zorren printzipala gehi errekareru aintzat hartuta kalkulatu baitira.

VIII.4 HUTS EGINDAKOAK

Huts egindako zordunak dira premiamenduzko bidetik ezin kobra daitezkeen kredituak dauzkatenak, dela haien eta gainerako arduradunen, halakorik badago, kaudimen gabeziarengatik, dela non dauden ezin izan delako jakin.

Huts egindakoen kudeaketa Prozedura Bereziaren Atalari dagokio. Atal horrek Diru-bilketaren Atalari jasoko du kaudimengabetzat jotako zordunen zerrenda. Hona 2008ko eta 2009ko kaudimen gabeziei buruzko adierazle batzuk:

dituzte, baina huts egindakoak kudeatzeaz arduratzen den atalak ez ditu beti eskura.

Erantzukizun subsidiarioaren deribazioak eskatzen du aurrena zorduna huts egindakotzat deklaratzeko.

Hona 2008an eta 2009an eginiko deribazioei buruzko datu batzuk:

Huts egindakoen kudeaketaz arduratzen den atalak eskuz eta banaka ikertzen ditu kaudimen gabekotzat jotako zordunaren balizko diru-sarrerak, bat-batean gerta litezkeen kaudimen egoerei antzemateko. Zordunaren kaudimena egiaztatu eta zorra iraungi ez bada, premiamenduzko prozedura berrabiatzen da. Kasu horretan, ez da automatikoki sortzen dagokion bahitura eginbidea.

Ikerketa- eta egiaztatze-jarduketa horietan guztietan, Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzuetan

edo administrazioaren beste departamentuetan zordunaren diru-sarrerei buruz dagoen informazioa ez da automatikoki gurutzatzen.

IX. PRESKRIBATUTAKO ZORRAK

Zorren preskripzioaren kudeaketa Diru-bilketa Zerbitzuko prozedura berezien atalari dagokio.

Honakoak dira 2008an eta 2009an preskribatutako zorren gaineko datuak, Diru-bilketa Zerbitzua-ren oroitidazkiaren arabera:

	2009		2008	
	Zenbatekoa	Ebazpen kopurua	Zenbatekoa	Ebazpen kopurua
– Ofizioz	7.215.615	1.933	8.427.820	3.947
– Zordunak eskatuta	1.835.025	107	698.552	149
Preskribitutako zorrak, guztira	9.050.640	2.040	9.126.372	4.096

Ofiziozko preskripzioak zorren espediente kolektiboaren instrukzioaren bidez izapidetzen dira, lau urte baino gehiago jarduketa administratiborik izan ez duten kontuak egiaztatu eta kontsultatu ondoren. Preskribituta deklaritzen dira kobratzeko behar diren kudeaketa eraginkorrak izan ez direnean, bahitzekoa den ondasunik ez egoteagatik edo ondorengorik edo erantzule subsidiariorik ez egoteagatik, betiere preskripzio epea eten duen egintza administratiborik izan ote den banaka aztertu ondoren.

Alde batek eskaturiko zor-preskripzioan, prozedura banaka izapidetzen da, eta preskripzioari buruzko adierazpena Diru-bilketa Zerbitzuak berak edo Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak egin ahal dute, edo bide judizialaz lor daiteke.

2009an preskribitutzat emandako zorren lagin bat aztertuta, ondorioztatzen dugu ezen, preskripzioa baino lehen, diru-bilketarako premiamenduzko prozeduraren jarduketa administratibo guztiak eginak zirela, eta organo eskudunak (Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea) zorren preskripzioa deklaratzeko espediente kolektiboaren instrukzioa eta onespena zuzen eginak zituela, kontu-hartzaitzak fiskalizazioa egin eta gero. Preskribitutako zorrei baja eman zaie erregistratuta zeuden kontuetan.

Gaur egun, diru-bilketaren kudeaketa hobetzeko proiektu bat dago abian. Zorren preskripzioari dagokionez, proiektu horrek preskribitzetik hurbil dauden zorrei buruzko kontsulta eta kontrola erraztu eta hobetuko du.

X. HARTZEKODUNEN LEHIAKETAKO PROZESUAN DAUDEN SOZIETATEEN ZORREN KUDEAKETA

Krisi ekonomikoa dela eta, 2008an eta 2009an nabarmen hazi da beren burua hartzekodunen lehiaketako egoeran deklaritzen duten sozietateen kopurua, halako moduz non lehiaketan diren sozietateen zorren gaineko kudeaketa hondarreko arlo bat izatetik Diru-bilketa Zerbitzuko Prozedura Berezien Atalak aurrera eraman ohi duen lan handienetako bat izatera pasa baita.

Horrelako zorren kudeaketak berarekin dakar, Nafarroako Zerga Ogasunarekin daukaten zorra komunikatu aurretik eta prozedura judizialean aurkeztu aurretik, hartzekodunen lehiaketako egoeran deklaraturako enpresei buruzko ikerketa- eta egiaztapen-jarduketak egitea.

Hona 2009ko eta 2008ko hartzekodunen lehiaketari buruzko jardueraren datu batzuk:

Hartzekodunen lehiaketak	2009	2008
– Aurkeztuak	98	64
– Amaituak	5	5
– Jakinarazitako kreditua	10.718.399	4.495.227
– Aitortua	6.983.489	5.775.842
– Kobrantzak	109.443	1.449.491
– Kitak	0	62.305
– Geroratua	28.609	250.330

XI. GOMENDIOAK

Honakoak dira “Diru-bilketaren Kudeaketa” aurrekontu-programaren kudeaketa hobetzeko Comptos Ganberak egiten dituen gomendioak:

- Alderdi orokorrak

Helburu zehatzak eta adierazleak definitzea haiek neurtzeko; lortutako emaitzak ebaluatzea, eta helburuak programan dagozkien aurrekontu-kredituekin lotzea.

Diru-bilketa Zerbitzuaren lan zama aztertzea, hartan behar diren langileak jarrita, bere funtzioak betetzeko behar diren langileak eduki ditzan eta diru-bilketaren kudeaketaren emaitzak hobetzeko, are gehiago zerbitzu horrek 2008an eta 2009an bere gain hartu duen jardueraren hazkundea ikusita.

Programari langile kontratatuen gastuak egozte.

Gedesa S.A. enpresa publikoari eginiko enkar-gua onestea, esleitutako lanak hasi aurretik.

Gastu arrunt gisa kontabilizatzea gutun, fotokopia eta antzekoetan eginiko gastuak.

Definitzea nola eta zer informazioekin eman behar den hirugarrenen kontabilitate laguntzailea, diru-bilketa kudeatzeko eragiketak kontabilitate orokorrean eta aurrekontu-kontabilitatean erregistratu daitezzen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako kontuetan eta kontabilitate publikoko printzipioen arabera.

Aplikazio informatiko bakarrean integratzea zorren diru-bilketarekin lotutako prozeduren fase guztietako informazioa, ekonomikoa nahiz kudeaketakoa.

Kobrانتzen helbideratzea sustatzeko jarduketak bultzatzea, haien aplikazioan gertatzen diren akatsak gutxitzeko.

- Aldi exekutiboa

Gaur egun garapen fasean dagoen hobekuntzako proiektu informatikoaren ezarpena osatzea, zorren kudeaketarako prozedura guztiak aldi exekutiboan automatizatzeko eta, horrekin, diru-bilketaren kudeaketa hobetzeko.

Aplikazio informatiko bakarra ezartzea egindako jarduketa guztiak biltzen direneko diru-bilketa exekutiboko kudeaketa integrala egiteko. Aplikazio

horrek aukera emanen du zerga ogasunean zordunei buruz dagoen informazio guztia, kontabilitateko aplikazio informatikoarekin lotuta dagoena, ustiatzeko.

Ahal den guztian, zorrak diru-bilketa exekutibora iragateko prozesua automatizatzea, eta premiamenduzko bidearen hasieran gertatzen den atzerapena saihestea.

Premiamenduzko errekarguak eta berandutze-interesak sortzeko eta birkalkulatzeko prozedurak aldatzea, zorra aldi exekutiboan kobratzeko unearen arabera behar diren errekarguak eta interesak automatizatu eta exijitzeko.

Berandutze-interesak gaurkotzea, zorra aldi exekutibora iragaten den unetik hura kobratzen den arteko aldia hartuta.

Bahitura-jarduketetan, zordunari buruzko informazioaren bilaketa sistematizatu eta automatizatzea, eta egindako jarduketak eta haien emaitza bilduko dituen tresna informatiko bat diseinatzea.

- Geroratzeak eta zatikatzeak

Berandutze-interesak aurkotu behar dira geroratzea eskatzen den zorraren kobrantzak aplikatu aurretik, kobrantzarekin geroratzea eskatu zen zorra kitatzen den kasuetan.

Prozedura informatikoa birdefinitzea, premiamenduzko errekargua ez dadin sar geroratzearen edo zatikatzearen berandutze-interesaren kalkuluan.

- Huts egindako zordunak

Tresna batzuk ezartzea bahitura-eginbidea modu automatikoan sortu ahal dadin, huts egindakotzat jotako zordunari kobratzeko premiamenduzko prozedura berrabiatzen den kasuetan.

Zordunaren egoera ekonomikoari buruzko edo zorren balizko erantzule subsidiarioei buruzko informazioa modu sistematiko eta automatikoan biltzea beste iturri batzuetatik, bai Nafarroako Zerga Ogasunetik, bai Foru Komunitateko Administrazioetik.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izaipideak bete ondoren, auditore M^a Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2011ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

NAFARROAKO GOBERNUKO BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA EKONOMIA ETA OGASUN KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz eta “Diru-bilketaren Kudeaketa 2009an” aurrekontu programari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena aztertutik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ondoko alegazioak egin ditu:

Txostenaren edukiari dagokionez:

Lehenengoa

Txostenean baieztatzen da, bi aldiz, justifikatu egiten dela GEDESA sozietate publikoari eginiko enkargua hain zuzen ere langileak falta direlako. Bada, horri dagokionez, aditzera eman nahi dugu zerbitzua emateko antolamendu-arrazioak direla enkargua justifikatzen dutenak, eta ez baliabide pertsonalen usteko falta bat.

Bigarrena

12. orrialdean honakoa dioen iruzkina egiten da: “Aztertutako laginean egiaztatu dugu ezen ehuneko bosteko errekaru exekutiboa ez zela zuzen aplikatu kasu guztietan.” Bada, horri dagokionez, alegatzen dugu une honetan errekaru hori beti eta zuzen aplikatzen dela deklarazioa dagoenean, jakinarazpenaren datak gaurkotuta daudenean eta kasuko ordainketa sartzen denean; hau da, kasu gehien-gehienetan.

Bestalde, akatsen bat izan den kasuetan, akats hori berehala hauteman eta zuzendu da.

Une hauetan, gomendatutakoaren ildotik, proiektu bat lantzen ari gara errekarua automatikoki birkalkula dezan, falta zen eta arestian adierazita zetorren parametroetako bat gaurkotzen denean.

Hirugarrena

15. orrialdean honakoa jasotzen da: “Kasu batzuetan kontabilitateak ez du zuzen jasotzen hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen informazioa kontabilitate plan orokorreko dagozkien kontuetan. Esate baterako, ez dira kontabilizatzen itxita-ko aurrekontuetako zordunak, eta ez dira, ezta ere, zuzen jasotzen zorren geroratzeak eta zatikatzeak.” Horri dagokionez, adierazi behar dugu HKLaren sistemak, zeinak informazio guztia bai baitu, horretarako irekita dauden eta aurrez determinatutako baldintza batzuk betetzen dituzten eta kontabilitaterako egunero sortzen diren idatz-ohar guztiak iragaten dituela. Hala eta guztiz ere, kontu, eremu edo egoera gehiago gaitu beharko balira, haiek sortzeko modua egonen litzateke, eta informazioa sistema batetik bestera pasatu ahalko litzateke.

Laugarrena

19. orrialdean, premiamenduzko prozeduraren hasierari buruzko analisiaren kariatara, honakoa esaten da: “2009ko ekitaldian, borondatezko aldiak obratu gabeko zorren 32 prozesu iragan ziren diru-bilketa exekutibora.” Horri dagokionez, besterik gabe argitu nahi dugu, zenbatekoaren txikiak nahasbidea ekartzearen kasurako, iragan diren 32 horiek prozesu automatikoak direla, 24.172 zor-iragate jasotzen zituztenak.

Bosgarrena

24. orrialdean, honakoa baieztatzen da: “Zorren zati bat zatikatu edo geroratu behar baldin bada, zatikatzea edo geroratzea baimendu aurretik obratzen da; kasu guztietan ez dira berandutze-interesak gaurkotzen...” Gure ustez, baiezta-pen hori ez da zehatza, zeren eta, egiazki, zorren kopuru bat ordaintzen bada, eta kopuru horrek aukera ematen badu zor zehatz bat guztiz kitzeko, nahiz eta beste zor batzuk egon, kudeaketaren ekonomiarengatik ordainketa zor horri aplikatzen zaio, eta interesak jada ez dira aplikatzen. Logikoa denez, ordaindu gabeko gainerako zorrei bai kalkulatu zaizkie dagozkien interesak, eta amaierako emaitza konturako ordainketa zor guztien artean banatuz lortzen denaren ia berdina da. Azken finean, kontua da ordainketa bat zor alternatibo desberdinei aplikatu ahal izatea.

Seigarrena

25. orrialdean honakoa esaten da: “Ikerketa-eta egiaztatze-jarduketa guztietan, Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzuetan edo administrazioaren beste departamentuetan zordunaren diru-sarrerei buruz dagoen informazioa ez da automatikoki gurutzatzen.” Gure ustez baiezta-pen hori ez da zuzena, zeren eta bai gurutzatzen da Ogasunean tributu-zordunen diru-sarrerei buruz dagoen informazioa. Bestalde, zordun horiek kudeatzen diren zergapeko ia guztiak dira. Ez da automatikoki –bai eskuz– gurutzatzen erantzule subsidiarioei buruzko informazioaren gutxieneko bat. Hura automatizatzeke, proiektu bat abiarazi da.

Gomendioei dagokienez:

Lehenengoa

Oro har, Nafarroako Zerga Ogasunaren jarduteko printzipioetako bat da eta izan da esleituta dauzkan helburuak betetzea zerbitzuak eta prozesuak etengabe hobetzearen ildoan. Horri dagokionez, bat gatzoz estrategia horretan txertatzen diren gomendioekin.

Bigarrena

Kobrantsen helbideratzea sustatzeko jarduketak areagotzea, haien aplikazioan gertatzen diren akatsak gutxitzeko.

Azken urteetan garaturiko arlo horren helburuetako bat izan da kobrantzen helbideratzea sustatzea. Horri dagokionez, zenbait ekintza gauzatu dira, diru-bilketaren arlotik ez ezik, araudiaren arlotik eta zordunari arreta ematearen aldetik ere, ordainketa modu hori aktiboki sustatzeko xedez. Esate baterako, 80/2008 Foru Legeak gaur arte emaitzak sortu dituen sistema bat arautu zuen. Emaitza horiek, gure ustez, adierazgarriak dira berez. Esate baterako, 2008an, 7.916 kobrantza helbideratu ziren; 2009an, 188.155 kobrantza helbideratu ziren, eta 2010ean, azkenik, 271.720 kobrantza. Ikus daiteke hazkunde esponenziala gertatu dela, eta aurten ere hazkunde horrek gora egingen duela.

Hirugarrena

Ahal den guztian, zorrak diru-bilketa exekutibora iragateko prozesua automatizatzea, eta premia-menduzko bidearen hasieran gertatzen den atzerapena saihestea.

Lehenengo, zorrak diru-bilketa exekutibora iragateko prozesuen automatizatzea guztiz orokortuta dago. Kobratzeko hamabostaldien egitura bera, aitorpenen grabaketa, kobrantzen aplikazioa eta geroratzeko eskarien identifikazioa direla eta, kobratzeko denbora hori ez da berehalakoa. Hala eta guztiz ere, zorrak diru-bilketa exekutibora iragateko denbora nabarmen gutxitu da. Helbideratzeak, deklarazio telematikoak eta geroratzeko bide telematikoetan integratzea urrats lagungarriak dira informazioa denbora gehiagorekin sistemetan integratuta eta baliozkotuta egon dadin eta, horrenbestez, kudeaketa-aldiak laburtu daitezten.

Aurrekoa gorabehera, kontuan hartu beharra dago zordun baten zorra premiamenduzko bidera aldatzea larritasun handiko jarduketa bat dela, bide exekutiboak kostu handiak eta ondorioak baitauzka. Hori dela eta, zuhurtasunez, automatikoki

hautatutako kontuen azken berrikuspen bat egiten da, balizko akatsak zuzentzeko edo zorra aldaraz dezakeen informazio berria kontuan izateko.

Laugarrena

Berandutze-interesak gaurkotzea, zorra aldi exekutibora iragaten den unetik hura kobratzen den arteko aldia hartuta.

Jarduketa hori prozedura guztien (zorra diru-bilketa exekutibora iragatea, zatikatzea, bahiturak) hastapenean egiten da.

Bosgarrena

Berandutze-interesak gaurkotu behar dira geroratzeko eskatzen den zorraren kobrantzak aplikatu aurretik, geroratzeko eskatu zen zorra kobrantzarekin kitatzen den kasuetan.

Puntu horretan, aurreko bosgarren alegazioan emandako azalpena jotzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2011ko apirilaren 5ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak behin-behineko txostenari buruz aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertu ondoren, laugarrena hartu zen aintzat, eta aipatutako txosteneko laugarren lerrokada aldatu zen.

Aurkeztutako gainontzeko alegazioei dagokienez, Comptos Ganberak uste du alegazio horiek ez diotela eragiten eginiko fiskalizazioaren edukari.

Iruñean, 2011ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko maiatzaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (20. or.).
- II. Helburuak, norainokoa eta mugak (20. or.).
- III. Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (21. or.).
 - III.1. Antolaketa-egitura (21. or.).
 - III.2. Araudia (22. or.).
- IV. Toki entitateen fiskalizazio-jardueren laburpen-txostena (23. or.).
- V. Toki sektore publikoaren finantza-egoera (25. or.).
- VI. Gomendioak (27. or.).

1. gehigarria Nafarroako toki sektore publikoaren egoerari eta Nafarroako udal bakoitzaren finantza-egoerari buruzko txostena, 2008koa.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorren bulegoetan, bai eta honako web helbide honetan ere:

www.cfn Navarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Izan ere, lege horretako 350.2 artikulua ezartzen duenez, Comptos Ganberak urtero igorriko die txosten-laburpen bat Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, Nafarroako toki entitateen arloan Comptos Ganberak egindako fiskalizazio eta kontrol jarduerena.

Lana auditore batek eta auditoretzako teknikari batek osaturiko taldeak egin zuen 2011ko urtarrilean, Comptos Ganberako zerbitzu informatiko, juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostena ezin izan da lehenago egin, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onesteko eta Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioiko Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazio-

ko langileei, lan hau egiteko emandako laguntza-rengatik.

II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lanaren helburuak hauexek dira:

a) Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio eta kontrol jardueren 2008ko ekitaldiko txosten-laburpena aurkeztea.

b) Nafarroako toki entitateen 2008ko finantza egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.

c) Toki entitateen kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.

Nafarroako toki entitateen 2008ko ekitaldiko kontu orokorra da lanaren norainokoa. Ondokoek osatzen dute kontua:

– Udalaren kontuak nahiz haren erakunde autonomoenak.

– Merkataritzako elkardeenak, horien kapitala oso-osorik kasuko toki entitatearena bada.

– Eranskinek.

Toki Administrazioiko Departamentuak gaiari buruz egin zuen txostenean –Ganbera horni igorritakoan– oinarritzen dira toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko ondorioak.

Lanak muga izan zuen ondoko toki entitateei buruzko informaziorik ez edukitzea, ez baitzioten 2008ko kontu orokorra igorri Nafarroako Gobernuari:

– Udalak: Xabier (112 biztanle), Petilla de Aragón (29 biztanle) eta Esa (259 biztanle).

– Kontzejuak: Amillao, Aramendia, Artozki, Arostegi, Gazolatz, Zarikiegi, Gerendiain, Iharnotz, Zulueta, Esnotz, Arre, Azotz, Zildotz, Eusa, Makirriain, Orikain, Orrio, Sorauren, Arlegi, Aizpun, Goñi, Goldaratz, Zia, Ardanatz, Aristregi, Gartziriain, Markalain, Otsakar, Murelu-Longida, Olaitz, Arteta, Iltzarbe, Domeñu, Muru Artederreta, Gerendiain, Altzorritz, Ibiriku-Deierri, Iruñela, Murelu-Deierri. 39 kontzeju horien artean 3.356 biztanle dituzte.

– Elkarateak Aezkoako Elkaratea eta Aralarko Batasuna

– Mankomunitateak. Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatea eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea.

III. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

III.1 ANTOLAKETA-EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarriko toki entitateak. Toki entitate dira ondokoak ere:

- Kontzejuak.

• Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoako Elkarteak, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzuko Unibertsitatea eta herri ondasunen titularrak diren edo administratzen dituzten izaera tradizionalako korporazioak.

- Mankomunitateak.
- Udal elkarteak.
- Administrazio barrutiak.

Hona toki entitateen eta haien menpeko erakunde kopurua 2008an eta aurreko urteetan:


Toki entitateak	2004	2005	2006	2007	2008
Udalak ⁽¹⁾	272	272	272	272	272
Kontzejuak	358	355	353	353	352
Mankomunitateak.	64	64	66	67	66 ⁽²⁾
Udal elkarteak	10	10	12	14	18
Guztira	704	701	703	706	708

(1) 60 udal konposatuak dira

(2) 7 mankomunitatek ez dute jarduerarik

Menpeko enteak eta partzuergoak	2004	2005	2006	2007	2008
Erakunde autonomoak	75	79	73	72	73
Enpresa publikoak	19	25	29	29	38
Fundazioak	9	11	11	13	13
Partzuergoak	11	10	10	11	16
Guztira	114	25	123	125	140

Hona, grafikoki, Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2008ko abenduaren 31n:



Nafarroako 272 udalen biztanle kopurua, errolda ofizialeko datuen arabera, 620.377koa zen 2008ko urtarrilaren 1ean. Hona haien banaketa:

Biztanle-tartea	Udal kopurua	Biztanleak	Guztiaren gaineko ehunekoa
<100	33	1.999	0,32
100-199	57	8.120	1,31
200-499	63	20.177	3,25
500-999	34	25.165	4,06
1.000-1.999	26	35.696	5,75
2.000-2.999	24	61.045	9,84
3.000-4.999	14	52.458	8,46
5.000-9.999	12	84.376	13,60
10.000-24.999	7	100.156	16,14
25.000-50.000	1	33.910	5,47
50.000 baino gehiago	1	197.275	31,80
GUZTIRA	272	620.377	100

Nafarroako udalen ehuneko 69k –187 udal–1.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Nafarroako biztanleen ehuneko 32 Iruñari dagokio.

Biztanle kopuru txikiak berekin ekarri ohi du giza- eta finantza-baliabide mugatuak edukitzea eta administrazio-egitura egoki eta nahikoa ez edukitzea bere eskumenak kudeatzeko, eta horrek zailago egiten du zerbitzuek efizientziaz, ekonomiaz, eraginkortasunez eta kalitatez ematea.

Ganbera honek behin eta berriro adierazi duen bezala, arazoa ez da entitateen kopurua bera, baizik eta eguneratu gabe egotea Nafarroako Toki Administrazioaren eredua, herritarren egungo eskaerak eta arazoizko kudeaketa publiko bat ezkondu behar dituen.

Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen 2007ko azaroaren 23an, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiaturik baitzuen proposamen bat aurkez zezan toki entitateen finantzaketari eta udal mapa modernizatu beharri buruz.

Halatan, Nafarroako Gobernuak Toki administrazioaren administrazio- eta eginkizun-berrantolamenduaren gaineko azterlan bat aurkeztu zuen 2008an; azterlanak agerian jarri zuen toki administrazioaren egungo sistemak ez duela uzten zerbitzuak modu efizientean eman daitezkeen eta ez duela ziurtatzen herritar guztiek zerbitzu berberak eta kalitate berarekin jaso ditzaten.

2009an, Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazioari Batzordeak azterlan horren gaineko

lan-talde bat sortzea erabaki zuen, Toki Administrazioaren administrazio- eta eginkizun-berrantolamenduaren oinarriak, helburuak eta proposamenak ezarriko zituen. Lan-taldea 2009ko martxoaren 17an eratu zen.

2011ko otsailean, aipatu batzordeak Toki administrazioaren administrazio- eta eginkizun-berrantolamenduari buruzko lan-talderen txostena onetsi zuen. Txostenean, Nafarroako Gobernuari eskatzen zitzaion Foru Lege proiektu bat egin zezan, Nafarroako toki entitateen egitura antolatzeke mapa bat jasoko duena.

Horren ondorioz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legea onetsi zen, eta hartan ezartzen da Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igoerriko diola Parlamentuari 2012ko irailaren 30a baino lehen, Nafarroako toki entitateen antolamendua eta tokiko mapa arautuko duena.

III.2 ARAUDIA

Ondoko lege- eta erregelamendu-xedapenak dira, funtsean, Nafarroako toki entitateek 2008an bete behar dituztenak:

- Aplikatzekoak dira, toki araubide eta administrazioaren arloan eta ekonomia-, aurrekontu- nahiz kontabilitate-araubidearenean:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak, aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako kontabilitate-instrukzio orokorra eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatuko Instrukzioaren onesteari buruzkoak, hurrenez hurren.

Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa.

Aurrekontu-egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorra.

- Administrazio-kontratazioaren esparruan, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean ezarritako berezitasunekin.

- Langileen arloan, Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

- Hirigintzaren arloan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

- Diru-laguntzen arloan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako erregelamendua.

Toki sektore publikoari aplikatu beharreko ondoko legeak onetsi ziren 2008an zehar:

- Azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legea, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezarri zituena

- 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea.

Administrazio-kontratazioaren arloan:

- Toki-inbertsioen Estatuko Funtsa sortzen duen azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretua. Funts horren bidez finantzatutako obra kontratuak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea betetzera behartuta daude, 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legeko hogeita bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

Hirigintzaren arloan:

- Ekainaren 20ko 2/2008 Errege Lege Dekretua, Lurzoruaren Legearen testu bategina onesten duena. Errege Lege Dekretu horren bidez bategin ziren Lurzoruaren maiatzaren 28ko 8/2007 Legea eta Lurzoruaren araubideari eta hirigintza antolamenduari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 26ko 1/1992 Errege Lege Dekretutik oraindik indarrean zeuden manuak.

- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 25eko 4/2008 Foru Legea, Eskualdeko Hirigintza Arauen indarraldia Lurralde Antolamenduari buruzko Plana onetsi bitarte iraunarazte aldera.

IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO-JARDUEREN LABURPEN-TXOSTENA

Nafarroako Comptos Ganberak ondoko 12 udalen 2008ko kontu orokorraren finantzen eta legez-kotasunaren erregulartasuna fiskalizatu zuen:

Udala	Txostenaren data	Erroldako biztanleria 2008/01/01	Diru-sarrerak	Gastuak	Menpeko entitateak		
					EEAA	Enpresa	Fundaz.
Antsoain	2010-02-05	10.340	12.536.775	11.668.808	3		
Barañain	2010-06-30	22.193	17.336.149	17.214.900	2	1	1
Berriozar	2010-06-14	8.899	8.718.800	9.797.521			
Burlata	2010-01-25	18.504	17.153.364	16.482.371	2	2	
Lizarra	2010-06-23	14.049	18.463.785	23.536.105	1	1	
Esteribar	2010-01-26	2.017	2.129.378	3.848.145			
Iruña	2010-03-30	197.275	277.546.064	255.120.429	2	5	2
Tafalla	2010-03-30	11.296	18.695.705	17.354.739	3	1	
Tutera	2010-04-20	33.910	39.605.828	46.228.169	2		
Villafranca	2010-07-19	2.988	4.386.786	4.531.528	2		
Atarrabia	2010-05-28	10.462	9.542.088	10.926.119			
Zizur Nagusia	2010-04-13	13.312	16.862.031	15.080.215	3		
Fiskalizatutako udalak, guztira		345.245	442.976.752	431.789.049	20	10	3

Fiskalizatutako 12 udalen artean 345.245 biztanle dituzte; alegia, Nafarroak 2008ko urtarrilaren 1ean zituen 620.377 biztanleen ehuneko 56. Horien diru-sarrerak Nafarroako toki sektore publikoaren diru-sarrera guztien ehuneko 48 egiten dute, eta gastuek, berriz, ehuneko 47.

12 udal horien artean 20 erakunde autonomo, 10 enpresa publiko eta hiru fundazio dituzte.

Fiskalizazioaren helburua zen gure iritzia ematea ondokoen inguruan:

a) ea Toki entitatearen 2008ko ekitaldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusienetan behar bezalako irudia erakusten zuen, 2008ko abenduaren 31n, ondareari, ekonomia- eta finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaizari buruz, aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-arauen eta -printzipioekin bat.

b) ea 2008ko ekitaldian legezketasuna bete ote zen.

Fiskalizazioaren emaitzak kasuko txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Comptos Ganberaren webgunean argitaratu.

Fiskalizaturiko 12 toki entitate horietatik, aldeko iritzia eman zen Berriozarko Udalaren kasuan, eta gainontzeko 11 udalen kasuan aldeko iritziak salbuespenen bat edo beste eduki zuen, kontu oroko-

rrarekin lotutako gabezia nabarmenak direla medio.

Hona salbuespen nagusiak:

- Inbentarioa eguneratu gabe edukitzea (7 entitate).

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pensio-ereduetatik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak (berariazko aurreikuspen-sistemak dituzten 3 entitateak).

- Kontabilitateko egoera-orrietan jaso gabeko diru-sarrerak eta gastuak (2 entitate).

- Finantza-egoerak eragindako ziurgabetasuna (entitate bat).

Hona Ganbera honek 2008ko fiskalizazio txostenetan egindako gomendio nagusiak:

Aurrekontu Orokorra eta Kontu Orokorra

- Kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea aurrekontu orokorra (10 entitate).

- Aurrekontuaren likidazioa hurrengo ekitaldiaren martxoaren 1a baino lehenago onestea (4 entitate), eta kontu orokorra hurrengo ekitaldiaren irailaren 1a baino lehenago onestea (5 entitate).

- Oroitidazkiaren edukia osatzea, kontu orokorra egoki interpretatu eta ulertzeko behar adina informazio emateko (4 entitate).

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua ezartzen dituen neurriak aplikatzea, diruzaintzagerakin negatiboko aurrekontua kitatzeko (3 entitate).

Ibilgetua eta inbentarioa

- Ondasun eta eskubideen udal inbentarioa eguneratzea eta onestea. Udal inbentarioa kontabilizatutako ibilgetuarekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatzea eta aplikatzea (7 entitate).

- Ibilgetua kontabilizatzeko prozedurak ezartzea, kontabilitateari buruzko araudiarekin bat (3 entitate).

- Udal ondasunen eskriturazte- eta erregistratze-prozesua burutzea (7 entitate).

Langileak

- Plantilla organikoa udalaren langileria-premiarrek bat datorren ala ez aztertzea (3 entitate).

Administrazio kontratazioa

- Kontratazio prozedura egokia aplikatzea, kontratuaren izaeraren eta zenbatekoaren arabera (5 entitate).

Emandako diru-laguntzak

- Diru-laguntzak emateko prozedurari buruzko ordenantza orokorra onestea eta plan estrategikoa taxutzea

Hirigintza

- Lurzoruaren udal ondarea eratzea eta kudeatzea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa sortzea (7 entitate).

- Planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea (5 entitate).

V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA

Toki Administrazioiko Departamentuaren txostenean oinarrituta dago toki sektore publikoaren 2008ko finantza egoeraren azterketa.

Txostenean toki entitateen eta haien erakunde autonomoen informazio bateratua ematen da, hala 2008koa nola aurreko ekitaldietakoa. Horrek hobekuntza dakar toki sektore publikoari buruzko 2007ko txostenaren aldean, han informazio atxikia jasotzen baitzen.

Hona toki entitateen eta haien erakunde autonomoen 2007ko eta 2008ko gastu eta diru-sarrera bateratuak, kapitulu ekonomikoen arabera emanak.

Kapitulua		Diru-sarrerak 2008	%, guztiaren gainekoa	DIRU-SARRERAK 2007	Aldaketa Diru-sarrerak 2007/08
1	Zuzeneko zergak	157,27	% 15	148,58	% 6
2	Zeharkako zergak	44,15	% 4	57,06	% -23
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	135,40	% 13	132,35	% 2
4	Transferentzia arruntak	281,56	% 26	254,76	% 11
5	Ondarearen diru-sarrerak	47,62	% 4	42,66	%12
	Diru-sarrera arruntak	666	% 62	635,41	% 5
6	Inbertsioen besterentzea	85,27	% 8	70,05	% 22
7	Kapital-transferentziak	233,59	% 22	287,23	% -19
	Kapitaleko diru-sarrerak	318,86	% 29	357,28	% -11
8	Finantza-aktiboan aldaketa	14,22	% 1	16,98	% -16
9	Finantza-aktiboan aldaketa	80,94	% 7	60,33	% 34
	Finantza eragiketarako diru-sarrerak	95,16	% 9	77,31	% 23
	Diru-sarrerak, guztira	1.080,02		1.070	% 1

Euroak, milioitan

2008ko ekitaldian, toki sektore publiko osoaren diru-sarrerek 1.080,02 euro egin zuten; horietatik, ehuneko 48 transferentzia arruntetatik eta kapital transferentzietatik heldu zen, ehuneko 19 zergeta-

tik, ehuneko 13 tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarreretatik, ehuneko 8 finantza-eragiketetatik, eta gainontzekoa, ehuneko 4, ondareko diru-sarreretatik.

Gastuak

Kapitulua		Euroak, milioitan			
		Gastuak 2008	Gastu guztien gaineko ehunekoa	2007ko gastuak	Aldaketa Gastuak 2007/08
1	Langileria-gastuak	251,62	% 24	231,73	% 9
2	Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosteta	256,77	% 24	239,28	% 7
3	Finantza-gastuak	12,80	% 1	8,60	% 49
4	Transferentzia arruntak	66,05	% 6	60,04	% 10
	Gastu arruntak	587,24	% 56	539,65	% 9
6	Inbertsio errealak	415,22	% 39	535,78	% -23
7	Kapital-transferentziak	20,22	% 2	21,34	% -5
	Kapital-gastuak	435,44	% 41	557,12	% -22
8	Finantza-aktiboen aldaketa	10,84	% 1	13,23	% -18
9	Finantza-aktiboen aldaketa	22,49	% 2	23,08	% -3
	Finantza-eragiketetako diru-sarrerak	33,33	% 3	36,31	% -8
	Gastuak, guztira	1.056,01		1.133,08	% -7

Toki sektore publikoaren gastuak 1.056,01 milioi euro egin zuten 2008an; horietatik, ehuneko 41 inbertsioak izan ziren, ehuneko 24 zerbitzuak eta ondasun arruntak erosteko, ehuneko 24 langileen gastuetarako, ehuneko 6 transferentzia arruntetarako eta gainontzekoa, berriz, finantza-eragiketek eragindakoak.

Diru-sarreraren eta gastuen ehuneko 88 udalei dagokie, ehuneko hiru kontzejuei eta gainontzekoa Mankomunitateei.

Hona toki entitateen 2005etik 2008ra bitarteko finantza-egoeraren zenbait adierazle:

Euroak, milioitan				
Adierazleak	2005	2006	2007	2008
Aurrezki gordina	84,63	120,37	104,37	91,56
Finantza-karga	29,27	33,73	31,68	35,29
Aurrezpen garbia	55,36	86,64	72,69	56,27
Zorpetze-maila	% 5,40	% 5,44	% 4,99	% 5,30
Zorpetze-muga	% 15,62	% 19,42	% 16,43	% 13,75
Zorpetze-ahalmena	% 10,22	% 13,98	% 11,44	% 8,45
Zorra, guztira	226,25	237,23	279,12	321,94
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	115,79	122,19	58,16	76,06

2008ko ekitaldia

2008an, toki sektore publikoak sortu zituen baliabide arruntak nahikoa izan ziren funtzionamendu gastuei eta finantza zamari aurre egiteko.

Horrela, aurrezki garbia (baliabide arruntetatik soberan gelditzen dena behin finantzatuta funtzionamenduko gastuak –langileak, ondasun eta zerbitzu arruntak eta transferentzia arruntak– eta zorraren finantza-zama –interesak eta amortizazioa–) 56,27 milioi eurokoa izan zen.

Kapital gastuak finantzatzeko (kapitaleko diru-sarrerak ez baitziren nahikoa) 116,59 milioi behar izan ziren, eta, horretarako, finantza-zorra erabili zen, baliabide arruntetako soberakina (aurrezki garbia), eta aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakina.

Zorpetze maila diru-sarrera arrunten ehuneko 5,30ekoa izan zen, eta zorpetzeko gaitasuna, berriz, aipatutako diru-sarreraren ehuneko 8,45ean zegoen.

Zorra 321,94 milioi eurokoa izan zen. Zorraren ehuneko 87 udalei dagokie, ehuneko 9 mankomunitate eta udal-batasunei, eta gainerakoa, ehuneko 4, kontzejuei. Korritu tasa, batez beste, ehuneko 2,81ekoa zen, eta epea betetzeko gelditzen zen batez besteko denbora, berriz, 16,37 urte.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua 76,06 eurokoa zen; horrek esan nahi du likidezia sortu zela hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko.

Toki sektore publikoak 2008an eta 2007an zitu- en finantza-egoerak alderatzen baditugu, honakoa dakusagu:

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergen bidez bildutakoak % 23 egin zuen behera. Aurreko jaitsiera hori gorabehera, diru-sarrera arruntek ehuneko 5 egin zuten gora.

Funtzionamenduko gastuak ehuneko 8 egin zuten gora.

Funtzionamendu gastuak diru-sarrera arruntak baino gehiago igo zirenez, 2008an sorrarazi zen aurrezki gordina 2007koa baino ehuneko 12 txikiagoa izan zen. Aurrekoarekin batera, finantza-zamak ehuneko 11 egin zuen gora, eta, horrela, 2008ko aurrezki garbia 2007an baino ehuneko 23 txikiagoa izan.

2008ko inbertsioek 2007koak baino ehuneko 22 gutxiago egin zuten. Baliabide arrunten soberakina gutxituta, gora egin zuten, ondorioz, inbertsioak finantzatzeko beste iturri batzuek. Horrela, finantza-zorragatik diru-sarrerak % 30 egiten

zuten gora, eta, era berean, gehiago erabili ziren gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak; 2007an, 33 milioi erabili ziren, eta 2008an, aldiz, 52,7 milioi.

Egoera hori dela-eta (batetik, zor handiagoa eta, beraz, finantza-zama handiagoa –zorraren batez besteko epemuga luzatuta zama handitu egiten baita eta denbora ez baita laburtzen–, eta, bestetik, baliabide arruntek sorrarazitako aurrezki gutxiago), toki entitateen zorpetzeko gaitasuna murriztu egiten da, eta horrek mugatu egiten du diruz lagundutakoak ez diren inbertsioei aurre egiteko ahalmena.

2006tik aurrera, toki sektore publikoaren finantza-egoerak okerrera egin duela ikusten da: diru-sarrera gutxiago, hirigintza jarduerak behera egitearen ondorio; kapital eta finantza-gastuen murrizketa, baina ez ordea gastu arruntena; zorraren handitzea; eta zorpetzeko gaitasunaren gutxitzea.

Bestalde, gastu arruntak diru-sarrera arruntak baino gehiago handitzearen ondorioz, aurrezki gordinak eta aurrezki garbiak behera egin zuten 2006tik 2008ra bitarte.

Halaber, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinen beherakada gertatu dela ere ikusten da; izan ere, ekitaldi bateko dirusarrerak ez dira aski ekitaldi horretako gastuei aurre egiteko, eta, hala, aurreko urteetan aurreztutakoa erabili behar izaten da.

VI. GOMENDIOAK:

Foru Komunitateko Administrazioarentzako eta Parlamentuarentzako gomendioak:

• *Lehentasunez aplikatu beharko liriteke Nafarroako Toki Administrazioa arrazionalizatzeko eta berregituratzeko beharrezkoak diren neurriak, hala legegintzakoak nola administratiboak, helburu hartuta toki entitateek gauza izan daitezela zerbitzuak emateko efizientziaz, ekonomiaz, eraginkortasunez eta kalitatez, eta izan ditzatela behar adina giza- eta finantza-baliabide helburu horretarako.*

Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan izanen dute eragina; hori dela eta, adostasun zabala lortzen saiatu behar da, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz, eta lidergo politiko-instituzionala gauzatuz neurrien inplementazioan.

• *Toki entitateen eta euren mendeko erakunde- en –erakunde autonomoak eta merkataritza-sozietate publikoak– egoera-orriak eta bateratzeari dagozkion eta egoki diren legegintza-neurriak*

hartu behar dira, toki sektore publiko osoaren jarduerari buruzko ikuspegi osoa emateko.

- *Beharrezkoa den arau-xedapena onestea, Foru Komunitateko toki entitateei aplikatu dakien Aurrekontu-egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorra.*

- *Tokiko kontabilitatearen berrantolaketa ekitia, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorriari egokitze aldera, komenigarria baita administrazio publiko ezberdinen arteko kontabilitate-normalizazioa.*

- *Idazkarien eta kontu-hartzaileen lanpostu hutsak betetzeko prozesua desblokeatzea, lanpostu horiek funtsezkoak baitira Toki Administrazioan ezinbestekoak diren zenbait funtzio publiko gauzatzeko; hain zuzen, idazkaritzakoak eta barne-kontrolakoak, aholkularitzakoak, kudeaketa ekonomiko-finantzariokoak, aurrekontuen kudeaketari buruzkoak eta kontabilitateari buruzkoak.*

- *Toki entitateen erregistroa gaurkotzea, toki entitatearen mendeko erakunde publikoei eta fundazioei buruzko informazio eguneratua jaso dezaten.*

Toki entitateei dagozkien gomendioak:

- *Erakunde autonomoen eta udal merkataritza-sozietateen kudeaketa ekonomikoaren barne-kontrola egitea, aplikatzeko zaion legerian ezarritako hedapenarekin, hau da, kontu-hartzailetzaren, finantzen eta eraginkortasunaren hiru ikuspegietatik.*

- *Udal ondasun eta eskubideen inbentarioa egitea, baloratuta eta eguneratuta; inbentarioa ibilgetuaren kontuetako kontabilitate-saldoekin lotu behar da. Horretarako, komenigarria litzateke inbentarioa kudeatzeko programa informatiko bat diseinatzea, eta zehaztea prozedura orokor batzuk eta irizpide bateratu batzuk inbentarioaren kudeaketari dagokionez.*

- *Lurzoruaren udal ondarearen kudeaketa egitea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta udal ondasunen erregistro orokorrean adieraztea eta zehaztea zeintzuk diren lurzoru-ondarekoak, baita hirigintza arloko legerian ezarritako xedeei lotuta daudela ere.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa sortzea, eta bertan jasotzea Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetarako justifikaturiko sarrerak eta irteerak.*

- *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*

- *Zerbitzu publikoen kostua kalkulatzeko eta kudeaketa-adierazleak zehaztea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izaipideak bete ondoren, auditore M^a Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2011ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Nafarroako Parlamentuaren Kontu Orokorrari buruzko aholkularitza-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko maiatzaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Parlamentuaren Kontu Orokorrari buruz eginiko aholkularitza-txostena, 2010eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuaren Kontu Orokorrari buruzko aholkularitza-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa (29. or.)
- II. Iritzia (29. or.)
- III. 2010eko Kontu Orokorraren laburpena (30. or.)
 - III.1. 2010eko gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (30. or.)
 - III.2. 2010eko ekitaldiaren aurrekontu-emaizta (31. or.)
 - III.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2010-12-31n (31. or.)
 - III.4. Egoera-balantzea 2010eko abenduaren 31n (32. or.)
 - III.5. 2010eko emaitzen kontua eta banaketa (33. or.)

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2011ko martxoaren 4an hartutako erabakia betez eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/2002 Foru Legean xedatuarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren 2010eko kontu orokorreari buruzko txostena –aholku ematekoa– egin dugu

Eskaera horrekin bat, lanaren ardatza izan da kontua osatzen duten finantzen egoera-orri nagusiak arrazoizkoak eta koherenteak ote diren aztertzea, bai eta haren agiri- eta justifikazio-euskarriak ere.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioak eta arau aplikatu dira, eta eskaeraren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Landa-lana 2011ko apirileko lehen hamabostaldian edin zuen auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Egindako eskaerarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Parlamentuaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen III. atalean.

Gure iritzian, Nafarroako Parlamentuaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuaren 2010eko ekitaldiko jardura ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari jarraikiz bete da, oro har.

José Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

III. 2010EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

III.1. 2010eko GASTU ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2010eko GASTUAK

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitoruriko betebeharrak	Betetzea (%)	Ordaindua	Ordaintzeke dagoena	Diruzaintza-gerakina
1. Langileria-gastuak	6.826.211,00	0,00	6.826.211,00	6.053.770,74	% 89	6.053.770,74	0,00	772.440,26
2. Ondasun arrunten eta zerbizuen gastuak	2.668.313,00	14.028,30	2.682.341,30	1.558.868,69	% 58	1.451.870,04	106.998,65	1.123.472,61
4. Transferentzia aruntak	3.001.037,00	0,00	3.001.037,00	2.868.140,08	% 96	2.833.038,99	35.101,09	132.896,92
6. Inbertsio errealak	850.710,00	104.973,28	955.683,28	384.990,04	% 40	323.472,01	61.518,03	570.693,24
8. Aktibo finantzarioak	57.795,00	0,00	57.795,00	43.945,68	% 76	43.945,68	0,00	13.849,32
9. Pasibo finantzarioak	137.076,00	0,00	137.076,00	0,00	% 0	0,00	0,00	137.076,00
Gastuak, guztira	13.541.142,00	119.001,58	13.660.143,58	10.909.715,23	% 80	10.706.097,46	203.617,77	2.750.428,35

DIRU-SARRERAK 2010

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitoruriko eskubideak	Betetzea (%)	Kobratutakoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860,00	0,00	2.860,00	74.481,82	% 2604	74.481,82
4. Transferentzia aruntak	12.480.701,00	0,00	12.480.701,00	12.480.701,00	% 100	12.480.701,00
5. Ondarearen diru-sarrerak	12.000,00	0,00	12.000,00	21.694,58	% 181	21.694,58
7. Kapital-transferentziak	1.011.380,00	0,00	1.011.380,00	1.011.380,00	% 100	1.011.380,00
8. Aktibo finantzarioak	33.606,00	119.001,58	152.607,58	44.920,07	% 29	44.920,07
9. Pasibo finantzarioak	595,00	0,00	595,00	0,00	% 0	0,00
Diru-sarrerak, guztira	13.541.142,00	119.001,58	13.660.143,58	13.633.177,47	% 100	13.633.177,47

III.2 2010eko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Zenbatekoak
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	13.588.257,40	10.865.769,55	2.722.487,85
2. Finantza-aktiboen eragiketak (8. kap.)	44.920,07	43.945,68	974,39
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (1+2)	13.633.177,47	10.909.715,23	2.723.462,24
II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia (9. kap.)	0,00	0,00	0,00
III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa (I+II)	13.633.177,47	10.909.715,23	2.723.462,24
1. (+) Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			119.001,58
2. (-) Finantzaketa-desbideraketak (baliogabetzeak)			0,00
IV. EKITALDI-FINANTZAKETAREN SUPERABITA EDO DEFIZITA (III+1+2)			2.842.463,82

III.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2010-12-31n

Kontzeptuak	Zenbatekoak	
	2009	2010
1. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	3.259,98	1.814,60
(+) aurrekontu korrontetik	0,00	0,00
(+) aurrekontu itxietatik	0,00	0,00
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	3.259,98	1.814,60
(+) Merkataritzako eragiketen emaitza	0,00	0,00
(-) kobratzeko zailak	0,00	0,00
(-) Eginiko kobrantzak, behin betiko aplikatu gabeak	0,00	0,00
2. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.634.471,60	3.041.864,21
(+) aurrekontu korrontetik	83.696,03	203.617,77
(+) aurrekontu itxietatik	0,00	0,00
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	2.550.775,57	2.838.246,44
(+) Merkataritzako eragiketen emaitza	0,00	0,00
(-) Eginiko ordainketak, behin betiko aplikatu gabeak	0,00	0,00
3. (+) Funts likidoak	2.753.818,53	3.124.951,16
III. Diruzaintza-gerakina, guztira (1-2+3) = I + II)	122.606,91	84.901,55
I. Diruzaintza-gerakin atxikia	119.001,58	84.901,55
II. Diruzaintza-gerakina, aplikatzeko dagoena	3.605,33	0,00

III.4. EGOERAREN BALANTZEA, 2010eko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA	Balantzea, 2010-12-31	Balantzea, 2009-12-31
A) IBILGETUA	26.667.612,98	26.323.445,37
Ibilgetu materiala	25.975.261,30	25.749.057,45
2020 Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	22.085.851,55	22.051.216,69
2030 Makineria, instalazioak eta tresneria	763.103,56	659.476,10
2040 Garraio-osagaiak	138.326,27	138.326,27
2050 Altzariak eta tresnak	1.108.297,23	1.103.419,35
2060 Informazio-prozesuetako ekipoak	528.803,00	513.866,33
2080 Ibilgetu materiala	1.350.879,69	1.282.752,71
Ibilgetu ez-materiala	664.358,45	535.978,69
2150 Aplikazio informatikoak	663.626,45	535.246,69
2180 Ibilgetu materiala	732,00	732,00
Ibilgetu finantzarioa	27.993,23	38.409,23
2540 Epe luzeko maileguak	27.993,23	38.409,23
B) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	3.155.076,97	2.775.948,11
ALDI BATERAKO INBERTSIO FINANTZARIOAK	28.311,21	18.869,60
5340 Epe laburreko maileguak	28.311,21	18.869,60
AURREKONTUKOAK EZ DIREN BESTELAKO ZORDUNAK	1.814,60	3.259,98
5610 Emandako aurrerakinak eta maileguak osasun-laguntza	1.814,60	3.259,98
Kontu finantzarioak	3.124.951,16	2.753.818,53
5700 Kutxa	3.813,35	3.664,03
5710 Erakunde finantzarioak	3.106.011,22	2.742.483,10
5711 Erakunde finantzarioak	15.126,59	7.671,40
(A+B) AKTIBOA, GUZTIRA	29.822.689,95	29.099.393,48
ABALAK ETA BERMEAK	16.217,91	37.537,27
0520 Jasotako abalak	16.217,91	37.537,27

PASIBOA	Balantzea, 2010-12-31	Balantzea, 2009-12-31
A) FUNTS BEREKIAK	26.779.645,90	26.463.742,04
ONDAREA	26.694.744,35	26.343.283,02
1000 Ondarea:	19.990.459,39	19.641.998,06
1030 Lagapenean jasotako ondarea	3.000,00	0,00
1070 Adskribatutako ondarea	6.701.284,96	6.701.284,96
Beste funts bereki batzuk	84.901,55	120.459,02
1291 Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	84.901,55	119.001,58
1300 Aplikatzeko dauden kontusailak	0,00	1.457,44
B) Epe laburreko hartzekodunak	3.043.044,05	2.635.651,44
AITORTURIKO BETEBEHAR AITORTUENGATIKO HARTZEKODUNAK	203.617,77	83.696,03
4000 Aitorturiko betebehar aitortuengatiko hartzekodunak ekitaldi korronteak	203.617,77	83.696,03
4010 Aitorturiko betebehar aitortuengatiko hartzekodunak ekitaldi itxiak	0,00	0,00
ENTITATE PUBLIKOEKIKO ZORRAK	2.838.246,44	2.550.775,57
4760 Foru Ogasun Publikoa, kredituak itzultzeagatik	2.761.167,60	2.471.059,71
4770 Gizarte Segurantzaren hartzekoduna	77.078,84	79.715,86
FINANTZAK ETA GORDAILUAK	1.179,84	1.179,84
5200 Epe laburrean jasotako fidantzak	1.179,84	1.179,84
(A+B) PASIBOA, GUZTIRA	29.822.689,95	29.099.393,48
ABALAK ETA BERMEAK	16.217,91	37.537,27
0570 Abal-emaileak	16.217,91	37.537,27

III.5. 2010eko KONTUEN EMAITZA ETA BANAKETA

ZORRA		HARTZEKOA	
6.225.153,15	Langileen eta parlamentarien gastuak	Salmentak	1.009,81
1.387.486,28	Kanpo zerbitzuak, hornidurak eta lanak	Diru-sarrera finantzarioak	21.649,58
2.901.546,51	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak	1.011.380,00
		Transferentzia arruntak	12.480.701,00
3.074.071,46	Aurrezkia (emaitza positiboa)	Bestelako diru-sarrerak	73.472,01
10.514.185,94	Zorra, guztira	Hartzekoa, guztira	13.588.257,40

Emitza doitua

ZORRA		HARTZEKOA	
3.074.071,46	Ekonomia- eta ondare-emaitza	ONDAREA (aktibatutako inbertsio garbiak)	351.583,61
119.001,58	Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	ONDAREA (aktibo eta pasibo finantzarioen aldaketak)	-974,39
1.457,44	Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	Baja Aplikatzeko dauden emaitzak	1.457,44
		Ekonomia- eta ondare-emaitza doitua	2.842.463,82
3.194.530,48	Zorra, guztira	Hartzekoa, guztira	3.194.530,48

Emitzaren banaketa

ZORRA		HARTZEKOA	
2.842.463,82	Ekonomia- eta ondare-emaitza doitua	Foru Ogasun Publikoa, kredituak itzultzeagatik	2.761.167,60
3.605,33	Ondarea (doitzeak gerakinak)	Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	84.901,55
2.846.069,15	Zorra, guztira	Hartzekoa, guztira	2.846.069,15

